## PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| PRESTAKUNTZA-ATALA | SAILKAPENA ETA ERREGISTROA FARMAZIAKO PRODUKTUAK ETA ANTZEKOAK EGITEAN HIGIENE- ETA SEGURTASUN-KONDIZIO OPTIMOETAN | Iraupena | 60 |
| | | Baldintzatua | |
| Kodea | UF0440 | | |
| Lanbide-arloa | KIMIKA | | |
| Lanbide-eremua | Farmakokimika | | |
| Profesionaltasun-ziurtagiria | Farmaziako produktuen eta antzekoen prestaketa | Maila | 2 |
| Prestakuntza-modulua | Materialen banaketa | Iraupena | 180 |
| Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak | Materialak higiene- eta segurtasun-kondizio optimoetan banatzeko ekipoak eta instalazioak prestatzea | Iraupena | 60 |
| | Farmaziako produktuak eta antzekoak egiteko pisaketa-eragiketak | | 60 |

## A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0049_2: EKOIZPEN-PROZESURAKO MATERIALAK BANATZEA gaitasun-ataleko LB4 eta LB5 lanbide-burutzapenekin.

## B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Pisaketak loteka ordenatzea, sailkatzea eta multzokatzea, banatzen diren produktuen trazabilitatea bermatzeko.
- EI1.1 Lehengaiak loteka multzokatzeko kondizio eta/edo irizpide nagusiak identifikatzea.
- EI1.2 Material pisatua biltzea, etiketatzea eta garraiatzea.
- EI1.3 Material bakoitzarentzat zehaztutako garraio-sistema identifikatzea eta erabiltzea (edukiontziak, garraio pneumatikoa eta abar).
- EI1.4 Biltegiratu aurretik lotearen sailkapena bermatzea.
- EI1.5 Materialen kalitatea zaintzeko bete behar diren biltegiratze-kondizioak bermatzea.
- EI1.6 Biltegia FIFO eta JIT irizpideen eta abarren arabera kudeatzea.

A2: Pisaketak erregistratzeko sistemak erabiltzea, biltegia kontrolatzeko.
- EI2.1 Pisaketari dagozkion datu guztiak erregistro-euskarri egokian erregistratzea.
- EI2.2 Pisaketen erregistroak eta etiketak lortzea, eta fabrikazio-gidaliburuari eta pisatutako lehengaien edukiontziei eranstea.
- EI2.3 Eskura dauden eskuzko identifikazio-sistemak, optikoak (barra-kodeak) eta irrati-maiztasun bidezko identifikazio-sistemak erabiltzea.
- EI2.4 Erabilgarri dauden pisaketa-sistema informatizatuak erabiltzea.
- EI2.5 Sistema automatikoen eta informatikoen funtzionamendu egokia egiaztatzea.

A3: Segurtasun- eta higiene-irizpideak erabiltzea materialen sailkapenean, garraioan eta biltegiratzean.
- EI3.1 Eragiketetan erabili behar diren lan-jantziak eta norbera babesteko ekipoak deskribatzea.
- EI3.2 Norbera babesteko ekipoak ondo hautatzea eta erabiltzea.
- EI3.3 Norbera babesteko ekipoak egoera onean daudela kontrolatzea.
- EI3.4 Erabiliko diren produktuak identifikatzea.
- EI3.5 Lan-ekipoak garbi eta behar bezala funtzionatzen mantentzea.
- EI3.6 Esperimentazioaren eta manipulazioaren alorretan, ordena eta doitasuna zaintzen direla eta garbiketa-prozesuak ezagutzen direla erakustea.
- EI3.7 Prozeduren segimendu egokia eginez, eremuak eta ekipoak kutsa daitezen saihestea.

### Edukiak

#### 1. Farmaziako produktuen eta lehengaien eta antzekoen sailkapena

- Farmaziako produktuetarako lehengaiak:
  - Printzipio aktiboak: Definizioa. Lorbideen eta talde terapeutikoen araberako sailkapena.
  - Eszipienteak: Definizioa. Eszipientearen osagaiak, funtzioa eta garrantzia.
  - Kanpo-estalduraren osagaiak.
  - Beste konposatu batzuk: Disolbatzaileak. Produktu osagarriak, eta abar.
- Kosmetikako produktuetarako lehengaiak:
  - Tentsioaktiboak eta emultsionatzaileak.

    - Produktu koipetsuak.
    - Hezetzaileak eta lodigarriak.
    - Antioxidatzaileak eta bitaminak.
    - Eguzki-iragazkiak.
    - Koloratzaileak eta kontserbatzaileak.
    - Lurrinak.
    - Substantzia bereziak.
- Farmaziako produktuak eta antzekoak:
    - Osasunean duten eraginaren araberako sailkapena eta garrantzia.
    - Oinarrizko araudia.

2. Industria farmazeutikoan eta antzekoetan materialak ordenatzeko, sailkatzeko, garraiatzeko eta biltegiratzeko sistemak
    - Ordenatzeko eta sailkatzeko teknikak eta ekipoak:
        - Farmaziako produktuak eta antzekoak sailkatzeko eta ordenatzeko irizpideak.
        - Materialen bilketa eta babesa.
        - Edukiontziak higitzeko sistema informatikoak.
    - Identifikazio-teknikak:
        - Eskuzko sistemak.
        - Sistema automatikoak. Barra-kodeak. Irrati-maiztasuna.
        - Etiketatzaileak.
    - Garraio-teknikak:
        - BIN edukiontziak.
        - Kutxatila herdoilgaitzak.
        - Garraio pneumatikoa.
        - Grabitate bidezko garraioa.
        - Dosifikazio-sistema konektatuak (onlinekoak).
    - Biltegiratze-teknikak:
        - Biltegiratze-jardunbide egokiak.
        - Biltegietako diseinua eta klimatizazioa.
        - Ohiko biltegiratze-sistemak.
        - Biltegiratze-sistema elektronikoak.
        - Teknologia aplikatua: irrati-maiztasuna, barra-kodea, informatika.

3. Materia-banaketarako datuak erregistratzeko sistemak
    - Ekipoen identifikazioa.
    - Materialak pisatzeko edo dosifikatzeko prozesu batean erregistratu behar diren parametroak.
    - Materialak banatzeko aplikazio informatikoak.
    - Dosifikazio elektronikoa (*dispensing*-a).

4. Segurtasunari eta higieneari buruzko oinarrizko kontzeptuak, industria farmazeutikoko eta antzekoetako lehengaien garraioan eta biltegiratzean
    - Ingurumena babesteko neurriak eta baliabideak:
        - Behar bezala fabrikatzeko arauak.
        - Kimikako lanbide-arloko ingurumeneko jardunbide egokiak.
    - Segurtasun-seinaleztapena eta katigamenduak.
    - Alarma- eta babes-sistemak.
    - Sua prebenitzeko, detektatzeko eta itzaltzeko metodoak.
    - Norbera babesteko ekipoak.

## C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
– 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
– Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
– Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
– 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
– Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0439: Farmaziako produktuak eta antzekoak egiteko pisaketa-eragiketak

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Farmaziako produktuen eta antzekoen prestaketa.